



ZABALARRAKO IGEKO 15/16KO 1. ASANBLADAKO AKTA

Hasiera ematen zaio Zabalarra IGEko 1. ohiko Asanbladari, 2015eko Azaroaren 12an, arratsaldeko 18etan Eskolako liburutegian 30 guraso eta IGEko batzordeaz osatua, Gaizka Agirre, Esti Intxausti eta Rebeca Barrasús buru duela.

1. Aurreko aktaren onarpena

Aho batez onartzen da 2015 ekaineko asanbladako akta

2. Eskola materialerako kuotaren onarpena

Esti Intxausti diruzainak Eusko Jaurlaritzak dirulaguntzak nola ordaintzen dituen azaltzen du. Ordainketek data edo epe finkorik ez dutela azaltzen du; diruzaintzak urte batean bi ordainketa eta beste urte batean ordainketarik ez duela esaten du.

Kontuak berrikustea nahi duenak IGEko gelara joatea eskaintzen die familiei.

Marisarekin (Zabalarra Eskolako idazkaria) hitz egin duela esan du, eta aurreko urteko kuota mantenduz gero aurtengo planeko ekintza guztiak bete daitezkeela, beraz kuota mantentzea proproatzen du.

Aho batez kuota mantentzea onartzen da

Aurten Eskolaz kanpoko ekintzen kuotak helbideratu behar direnez, jende askori, BBKn konturik ez izategatik 3 € komisioa kobratzen diote ikaslearen izena ipintzeagatik. Beraz helbideratzean izenik ez ipini eta ordainagiria diruzaintzan entregatzea eskaintzen da bertan izena ipinita.

3. Proiektatutako ekintzak

Gaizkak 15/16 ikasturterako eskolaz kanpoko eta eskolaz kanpoko kirol ekintza, ibilaldi eta irteera, gurasoen formakuntza, antolatutako jai eta eskolarekin egun berezietarako (azaroaren 25a, matxoaren 8a,...) kolaborazioei buruzko IGEren eskaintzen zerrenda bat egiten du.

4. Karguen eta komisioren berrizatzea

Lehendakaritzan bi urte pasa ostean, Gaizkak aire aldaketa bat porposatu eta bere kargua usten duela esaten du. IGEk Eguzkiñe Salterain aurkezten du lehendakari moduan. Aho batez onartzen Eguzkiñe Salterain Zabalarra Eskolako IGEko lehendakari moduan. Estatutuen arabera Lehendakariorde postua behar dela, eta aurretik postu hori bete ez denez boluntarioak eskazen dira posturako.



Eskolaz kanpoko ekintzen komisiotan aldaketak janarazten dira eta bolondres berriak eskatzen dira. Amaia Martinek, bertaratutako persona batek galdetuta komiso horren bete-beharrak azaltzen ditu eta noiz erabili behar den denbora gehiago aurrera atera dadin.

Maidor Jorge eta Monika García apuntatzen dira komisiara

5. Galde-eskeak

- Iratxek Elkar-truke txokoa azaltzen du. Trukea eta donazioa helburu dituela komentatzen du. IZena eta telefonoa ipini behar direla azpimaratzen du
- Bertaratutako batek ikasleek ibilaldietara eramaten duten janaria eskasa dela esaten du eta aldatzeko posibilitaterik dagoen. Beste batek bere kexak Auzolani zuzentzen dituela esan du. IGEk Auzolaneko ordezkari eta Zuzendaritzari kexak jakinaraztea ardurako dela dio. Nahiz eta bertaratutako gehiengoak janaria ondo dagoela deritzon, txangoetako janaria del txarrena. Pertsona bakoitzari egokitutako janaria egitea komentatzen da, baina leku fisikorik ez dagoela. Gaizkak elkarte bat dagoela dio janariaren kalitate oso arduratua dagoela, Berton-Bertokoa deitutakoa, eta IGEk ideia berdina duela; jantokian aldaketarik egiteko posibilitatea baldin badago jakinaraziko duela.
- Bilduriko batek Zabalrrako blogean Eskolako talde ezberdinek jokaturako partiden orduak eskegitea proposatzen du, ikusten eta animatzera joateko aukera izateko. Eguzkiñek, blogeko arduradunak, problemarik ez dagoela eta ideia ona dela dio.
- Beste bertaratutako batek haur hezkuntzako ikasleen irteera modu ordenatu edo ezberdinean egitea posibilitatea aurkezten du. Blokeka egiteko posibilitatea aztertuko da eta Zuzendaritzari aurkeztuko zaio.
- Pertsona batek kuota noiz kargatuko den galdetzen du eta Esti diruzainak 2016ko otsailean edo martxoan egingo dela dio.

Behin galde- eskeak amaitu ostean asanblada amaitutzat ematen da 19.15etan